

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Aranalde Lasa

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Patxikutorre etxean jaio zen, baina ezkontzerako osabarena zen Intxaurren baserrira joan zen bizitzera. 9 senide ziren. Artzain ibilia da gaztetan. Familiatik jaso zuen hargintzako ofizioa. 16-17 urterekin hasi zen hargin lanetan. Hala ere, fabrikari ere ibilia da lanean, lehenbizi Arrosi paper-fabrikari eta gero Leitzan (Sarrion). Anson (Huesca) egon zen soldadutza garaian. 12 seme-alaba izan zituzten eta semeek ere hargintza lanbideari eutsi diote.

Zintak

BRS-025

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-19
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Hargina zeneko kontuak

- **Erref:** BRS-025/006
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:10:03. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Hargina zenean, zer lan egiten zituen azaltzen du. Harria menditik lortzen zuten eta kamioietan garraiatzen. Oinarriko tresnak erabiltzen zituzten harriarekin lan egiteko.

Transkripzioa

-Harginak ze lan klase eitten zenduen? Paretak eitten esan dozu.
-Paretak eitten, bai. Etxek eitten-ta, hemen Eldun ein gendun, Berrobin ein gendun eta; etxeko, hemen Berastein ein gendun beste bat eta. Gero bordak ere bai ta. Hola aitzen giñen. Aitta're zahartu zan eta, gero etxe berrie ein zien hor, bi edo ta, haiei ezkiñ guzik hartzen eta. Aittek ez zun

juan nahi izaten eta, zahartu ein zan eta. Haren tokin ni juaten nitzen.
-Eta harrie nundik ekartzen zenduen?
-Harrie kamionakin ere ekartzen zuen eta, irikin eta, hola ibiltzen zuen.
Harrie, hemen harri asko baitao.
-Menditik?
-Bai. Harrobirik-eta bazan?
-Harrobik bazien baiño harrobie ez zen izaten; bestaldera, mendikoa, harrie ta. Gero ekartzen zuen kamionakin harrie falta zanen, beherko. Harri asko [...], etxea ingo [bada], harri asko behar du. Ez da bela osatzen.
-Eta harri bila zuek juaten ziñaten edo beste batzuk ibiltzen zien lan horretan?
-Harri bila gu nekez. Gu jartzen. Billa, ba, behin edo behin juango giñen baiño. Bestaldea, lan in behar zan tokin. Hola aitzen giñen.
-Eta zer erraminta erabiltzen zenduen?
-Erremintak mailluk eta ze hoiexek, ze haundiik ez. Gero, bakizu, plomadak eta holako zea batzuk; ezerrez.
-Elizatan eta ibili izan zarete?
-Ez. Hemen bai Platadien, eliza dao [...]. Horko barrio [...] denak eiñak die hoik. Berastegiko elize. Hortik Platadie behera. Izkiñetako paretak hoik danak nik in nittun, e. Beste bat eta biok hasi giñen eta hue nagusikin hasarretu eta ni aittu nitzen hor. Pareta asko baitao egiñakhor bi aldetatiken. Hoik'e nik eiñak die ta. Ba, hortxe nunbaitt ari in behar.

2. Aita harria lantzen ibilitakoa

- **Erref:** BRS-025/007
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Bere aitag harria landu egiten zuen. Dena eskuz egiten zuen. Donostian ikasi zuen harria lantzen. Harri motei buruz hitz egiten du: gehien kare-haitza erabiltzen zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com